



## Xabier Mendiguren Bereziartu

### Egonkortasunaren urtea

**E**giten dugun zernahi etiketapean biltzeko joera handia izaten da gurean. Sarritan esan izan da izenlagunak eman ohi diola jardunari izateko modua, ezaugarria. Iazkoa Kontseiluaren abiatze urtea izan zela esan genuen bezala, oraingo hau, amaitzear duguna eta hurrengoaren erdia pasa harrapatzen duen *kurtsoa* egonkortasunarena izango dela esan izan dugu. Egonkor eta sendo erantzun behar baitzaie aurrez aurre ditugun erronkei.

Ez zen urte erraza eta makala izan iazkoa. Kontseilua eratu eta hilabete gutxitara abian zen Euskal Herri mailako ekimen erraldoia, «XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari» izenaz ezagutu dena bazter guztietan. Kexu ziren gure arteko asko, kanpaina handi horrek euskalgintzaren indarrak zurrupatuko ote zituen beldur. Urteroko kanpainak egin behar ote ziren galdetu zuen bakarren batek, alajaina! Orduko arrakastaren distirak ez gintuen, ez, itsutu. Kontseiluaren egitekoa ez da, inondik ere, kanpaina edota bestelako ekimenak ziklikoki antolatzea, iazkoak euskarak duen behar gorrienetakoa aldarrikatzea baitzuen helburu: gizarte osoaren esku-hartzea eta borondatea behar dira euskarak bizirik iraungo badu. Hori honela, salbuespen kanpaina izan zela esan daiteke, abian jarri behar zuen prozesua jadanik burutzen ari delako.

Orduko giroak emandako fruiturik nabarmenena Bai Euskarari Akordioa bera izan da. Bertara bildu diren ia 700 gizarte eragileek kanpaina horren testuinguruan jaso zuten euskal gizartearen mandatua: gutariko bakoitzak, nor bere esparruan, euskararen normalizazioan ardura handia du eta hitzetatik ekintzetara igarotzeko ordua heldu zaigu. Akordioa sinatu eta berehala abian jarri zen borondate hori hezurramitzeko prozesua, Plan Estrategikoa-

ren diseinuarekin jadanik amaitzear dagoena. Horretara iritsi ahal izateko, hots, eragile sozial horiek guztiak zorroztasun handiko metodologian inplikatu ahal izateko, ezinbestekoa zen bitarteko ekonomikoak eskuratzea eta hori euskal herritarrek segurtatu zuten. «Lanordu bat akordioaren alde» ekimenaren arrakastak gure hizkuntzaren garapena behin betiko bideratu nahi duen konpromisoen prozesua ahalbidetu du neurri handian.

Plan Estrategikoak lanabes ezagunak dira enpresa munduan. Bere dohainik azpimarragarriena parte-hartzeari ematen dion garrantzia da, elkarrekiko gogoeta egitea baita, funtsean, metodo honek eskaintzen duena. Gizartearen jarduera ia guztiak 22 sektoretan antolaturik lantzen ari dira eta sektore horietako bakoitzean parte hartzen dute gizarte eragileek, nork bere sektoreko azterketa eginez, lehenik, helburuak zehaztuz, ondoren, eta helburu horiek erdiesteko beharrezkoak diren konpromisoak adostuz, azkenik. Hauxe da, hitz gutxitan, Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoak egin beharreko bidea. Hegoaldean diseinuaren azken urratsa gainditu dugu jadanik, hots, konpromisoak adosteko fasea igaro berri dute gizarte eragileek. Iparraldean, ordea, prozesua bere hastapenetan dago, hango errealitatea ezagututa erritmoak egokitzea komenigarria zela iritzita, hain zuzen.

## Euskalgintzaren erronka

Gizarte eragileak dira, funtsean, konpromisoen prozesuaren protagonistak eta azken erabakitzaileak, eragile horietako bakoitzak erabakiko baitu, barne gogoeta egin eta gero, neurri normalizatzailerarik zein hartu eta zein erritmotan inplementatu. Euskalgintzako erakundeok ere zuzenean hartu ahal izango dugu parte prozesu honetan, baina gure zeregina konpromiso zehaztatetik haratago doa. Izan ere, euskararen munduak prozesu honen arrakastaren giltza du eta izango du une oro: normalizazioaren inguruko kezkarik handiena, batetik, urtetako esperimentzia eta etorkizunerako aurreikuspen sendoa, bestetik

eta, garrantzitsuagoa dena, normalizazioak erdietsi behar duen egoera berriaren gaineko erantzukizun sozial erabatekoa. Bestela esanda, guri dagokigu urteetan nork bere txokoan adierazitako kezka lau haizetara zabaltzea, ibilian ikusi eta ikasitakoa orain bidean abiatzen ari direnei jakinaraztea eta, azkenik baina inondik ere ez azkena, eszenario berrirako oinarri sendoak finkatzea.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak zeregin garrantzitsu bi ditu: euskararen normalizazioan jauzi kualitatibo bat eragitea, batetik, eta euskalgintzaren indarrak konpaktatzea eta kohesionatzea, bestetik. Lehena arestian azaldu dugun Bai Euskarari Akordioaren prozesuarekin bideratzen ari da gizarte eragimenari dagokionez, baina bada gutxienez horren parekoa den beste arlo bat, eraginkortasunari begira funtsezkoa dena: jardun politikoa. Euskararen aldeko jardun politikoak eta publikoak ezinbestean uzartu beharra dute, gizarteak erakutsitako borondatearekin sintonian lan egitea baitagokie alderdi politiko eta instituzioei. Iazko kanpainaren testuinguruan Euskal Herriko hamar alderdi politikok «Normalizazioaren aldeko Konpromiso Politikoa» izeneko agiria sinatu zuten eta bertan jasotzen diren puntuek osagarritasun hau islatzen dute. Konpromiso hau zabaltzean eta betetzean datza, neurri handian, euskararen etorkizuna bermatuko duen jardun politikoa eta horretarako lanean dihardu Kontseiluak. Lehentasunezkoa dugu euskararen gaur eguneko marko juridiko-politiko aldutzea, euskararen ofizialtasuna bere lurralde osoan lortzea, hain zuzen ere. Bistakoa denez, ofiziala izateak ez du erabateko normalizazioa berez ekarriko; Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofizialkidea da gaztelaniarekin batera, baina oraindik esparru asko bereganatu behar ditu bere egoera normaltasunaren atalasean dagoela esan ahal izateko. Hau honela izanik ere, ezinbesteko baldintza du euskarak bizirik irautea nahi badugu, legez onartua izatea eta estatus horri dagokion laguntza programak eratzea. Zoritxarrez, oso urruti gaude oraindik balizko egoera horretatik Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian eta bertara zuzendu behar dira une honetan gure indarrak.

## Sendotasuna

**E**uskaraz sortu eta une oro berregiten den unibertsoak ongi daki zein garrantzitsua den euskal gizartearen esku-haritzea euskararen normalizazioan. Ez dezagun ahatz elementu honek, hizkuntzaren bizikidetzaren orekatuak, ondorio oso nabarmenak edukiko dituela gizartearen beraren kohesio eta ongizatean. Plan Estrategikoak bezain kanpoko proiektio nabaria ez badu ere, euskalgintzaren baitan burutu beharreko gogoeta funtsezkoa da azaldu dugun konpromiso prozesuaren arrakastarako. Kontseilutik berehala heldu nahi zaio gai honi, aurrez egindako ekarpenak sistematizatu eta aurrera begirako jardunak finkatzeko. Ez gara hutsetik abiatzen; duela ia 6 urte abian jarri zen geroa Euskararen Unibertsoa eta Kontseiluaren eraketarekin mamitu zen hausnarketa prozesua eta horretan finkatu ziren, neurri handian, ondoren egindako lanaren oinarriak.

Esan beharrik ez dago euskalgintzari buruzko gogoeta ez dela Kontseiluaren eskusiba, baina era berean ukaezina da Kontseiluan bilduta dagoen euskalgintzaren indarrak ekarpen funtsezkoak egin behar dituela gure etorkizuna nolakoa izango den auresaten hasteko burutu behar den gogoeta honetan.

Kontseiluaren egitekoa kanpainak antolatzetik hara- tago doala esanez hasi naiz gogoeta honetan. Bistakoa da, beraz, euskal gizartearen baitan eragitea dela bere eginkizunik garrantzitsuena eta horren baitan ulertu behar dela, halaber, euskalgintzaren beraren konpaktazioak horrenbeste aldaketa ezagutuko duen mende berriaren atarian duen garrantzia. Ildo horiek guztiek, bakoitzak bere tenpus eta erritmo bereziak dituelarik, euskalgintzan eta euskal gizartearen ditugun erronka nagusiak islatzen dituzte. Horretarako ari gara lanean. Igaro dira jadanik asmo eta hitz ederren garaia. Horiek plazaratu eta gero, hitzetatik ekintzetara igaro beharra dago. Epe berri honek izenlaguna behar badu, beraz, egonkortasuna da, sendotasuna. ♣